



2.EDIZIOA

GURASO ELKARTEEN
HEZKUNTZA JARDUERA
ONEN 2. LEHIAKETA





EDIZIOA: 1. 2012KO AZAROA
ALE-KOPURUA: 1.500
ARGITARATZAILEA: EHIGE
INPRIMATZAILEA: GRAFINORTE
L.G: BI-1902-2012
DISEINUA: //OLATU// XABAT AGIRRE
WWW.EHIGE.ORG/PRAKTIKAONAK

BABESLEA:



HEZKUNTZA, LIBERTATEA
ETA IRRIKETA BARRA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

SARRERA

Aspaldiko ametsa bete genuen duela bi urte: Guraso Elkartearen hezkuntza-jarduera onen lehiaketa bat antolatzea. Harrera ona ikusirik, bigarren edizioa prestatu genuen 2011-2012 ikasturtean.

Ekimen honi esker, Guraso Elkartearen antolatutako 40 esperientzia baino gehiago ezagutzeko aukera izan dugu. Eta oraingo honetan ere zailtasunak izan ditu epaimahaiak. Aurretik zehaztutako irizpideetan oinarrituz, hiru sari eta beste hainbat aipamen aukeratu ditu.

Ekainaren 10ean Zarautzen ospatu genuen Euskal Eskola Publikoaren 21. Jaian banatu genituen sariak. Esperientzia horiek ezagutarazteko momentua iritsi da orain. Esku artean duzu.

Zorionak irabazleei, mila esker parte hartu duzuen IGE guztiei eta, ez duzuenok, aukera duzue hirugarrenean parte hartzeko. Animo!

Usoa Urbieta
EHIGEko presidentea

IIRIZPIDE

AK/

EPAIMA

HAIA

IRIZPIDEAK

- Proiektuaren originaltasuna
- Guraso Elkartearen ekimena proiektuaren diseinuan eta burutzean
 - IGEaren parte-hartze maila prozesu osoan
 - Bilatzen diren helburuen garrantzia
 - Helburuen betetze maila
 - Kordinazio maila ikastetxearekin
- Inguruko beste eragileen parte-hartzea (erakundeak, elkarteak...)
 - Beste ikastetxeetara orokortzeko erraztasuna
 - Proiektuaren jarraikortasuna ikastetxean bertan
 - Memoriaren aurkezpena
- Gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren sustapena
 - Euskararen sustapena
 - Ikuspegi kultur anitza
 - Ikuspegi inklusiboa
- Ebaluaketa kontuan hartzen den

EPAIMAHAI

Hauek osatu dute EHIGEk antolatutako Guraso Elkarteen Hezkuntza-Jarduera Onen

Lehiaketaren epaimahaia:

Garbiñe Arrizabalaga, Baikarako prestakuntza arduraduna

Ana Eizagirre, BIGEko aholkularia

Cristina Díez, Denon Eskolako presidentea

AUR KIBID EA

LEHEN SARIA {1. ORRIA}

MAESTRO GARCÍA RIVERO GURASO ELKARTEA (Maestro García Rivero LHI, Bilbo)
"Zientzia azoka Atxurin"

BIGARREN SARIA {7. ORRIA}

BURUNZPE GURASO ELKARTEA (Sasoeta-Zumaburu LHI, Lasarte)
"AMPA 2.0"

HIRUGARREN SARIA {15. ORRIA}

ZURBARAN GURASO ELKARTEA (Zurbaran LHI, Bilbo)
"Komunitate-lanaren eguna"

AIPAMEN BEREZIA {21. ORRIA}

ALTZAGA IKASTOLA-ERANDIO GURASO ELKARTEA (Altzaga Ikastola LHI, Erandio)
"Hobetu beharreko alderdien auditoria sukaldea kudeatzeko"

AIPAMEN BEREZIA {27. ORRIA}

JAIKIN GURASO ELKARTEA (Ruperto Medina LHI, Portugalete)
"Familia lagunen proiektu kultur anitza: elkar ezagutuz ezagutu"

AIPAMEN BEREZIA {33. ORRIA}

IGNAZIO ZAPIRAIN GURASO ELKARTEA (Koldo Mitxelena LHI, Errenteria)
"Euskal kantuen txokoa"

A large, stylized, light green graphic of the number '212' is positioned in the background. The '2' is on the left, the '1' is in the middle, and the second '2' is on the right. The digits are thick and have a modern, rounded font style. The background is a solid, dark green color.

LEHEN SARIA

“ZIENTZIA AZOKA ATXURIN”

MAESTRO GARCÍA RIVERO GURASO ELKARTEA
(Maestro García Rivero LHI, Bilbo)

Bilboko Atxuri eskolako guraso elkarteak bi urtez (2010-2012) antolatu du zientzia azoka. Erronka nagusia zientziarekiko zaletasuna sustatzea da; era berean, eskola-curriculumean jasotzen diren prozesu naturalak ikertzea, hainbat gaitasun garatzeko aukera izatea, eta baita, eskola komunitatearen kohesioa sendotzea. Azokan, zientziaren oinarriko printzipioak aztertzen dira, hala nola, klima, ura edota energiarekin erlazionatutako gaiak. Horretarako umeez esperimendu errazak (eta ez hain errazak!) diseinatzen dituzte azoka egunean, giro umoretsu eta nasaian, jendaurrean erakusteko eta azaltzeko modukoak.

AURKEZPENA

Atxuriko eskolako Ikasleen Guraso Elkar-
tea (Maestro Garcia Rivero L.H.I.) azken
urteotan, jarduera ludiko hezitzaileak ari
da burutzen sorkuntza-prozesuak bul-
tatzeko eta eskola-komunitate osoaren
elkarkidetzat sustatzeko asmoz. Ekimen
horien bitartez, umeak eta bere familiak
elkarrekin lan egitea ahalbidetzen da.
Bestalde, liburutegi proiektua eskolan
ezarri izanak topagunea sortzea eragin
du eta IGEak aprobetxatu egin du fami-
liak modu aktiboagoan inplikatzuz. Eki-
men horietako bat, IGEak proposatua
eta Liburutegi proiektuarekin uztartzeko
oniritzia eta elkarkidetzat jaso duena
Zientzia Azoka dugu. Berau azken bi
ikasturteetan (2010-11 eta 2011-12) bu-
ruru izan da eta parte hartze handia lor-
tu izan du.



Erronka nagusia zientziarekiko zaletasu-
na sustatzea da; era berean, eskola-curri-
culumean jasotzen diren prozesu natu-
ralak ikertzea, hainbat gaitasun gara-
tzeko aukera izatea, eta baita, eskola ko-
munitatearen kohesioa sendotzea. Azo-

kan, zientziaren oinarriko printzipioak
aztertzen dira, hala nola, klima, ura edo
ta energiarekin erlazioatutako gaiak.
Horretarako umeek esperimentu errazak
(eta ez hain errazak!) diseinatzen dituzte
azoka egunean, giro umoretsu eta nasai-
an, jendaurrean erakusteko eta azal-
tzeko modukoak. Hortaz, deialdirako le-
loa jasmatu, burutu, erakutsi! izatea era-
baki genuen.

Azokako erakusketa bera hainbat fase-
ren emaitza da. Prozesuan, sorkuntza era
atseginean garatzea bilatzen da, baita
gaitasun eta konpetentziak garatzea ere,
esaterako, gaitasun teknologikoak,
ahozko zein idatzizko adierazmena edo-
ta informazioa bilatze eta sailkatzea.
Esan gabe doa, talde-lana eta parte har-
tzea prozesuaren atal garrantzitsuak di-
rela.

HELBURUAK

Gaitasunak eta konpetentziak susta- tzea:

Prozesu osoaren helburua da lan-talde-
ek, ikasten ikasteko lagungarri zaizkien
gaitasun eta konpetentziak lantzea, ho-
nakoak besteak beste:

- Taldeak osatu: jarduerak aukera ematen
du taldeak gelaz barruko zein kanpoko
kideekin (lagunak izan zein neba-
arrebak izan) osatzeko.

- Informazioaren erabilera: partehartzai-
leek proiektua planifikatu egin behar
dute, saiakuntza diseinatzeko ideiak bi-
latu, muntaia egiteko materialak asmatu,
beharrezkoa denean helduren bati la-
guntza eskatu. Liburutegi orduetan, in-
formazio-bilaketarako (liburuetan, inter-
neten, ea) aukera eskaintzen eta erraz-
ten zaie. Horretarako IGEak material di-
daktikoa utzi du eta liburutegiko ardura

daraman irakaslearekin harremanetan egon da etengabe azokako parte hartzaileen beharrak asetze aldera.

“IKASTEN IKASTEKO GAITASUNAK LANTZEN DITUGU”

- Ahozko zein idatzizko adierazmen gaitasunak: Umeek aukera dute bere esperimentua nola dabilen azaltzeko, zerez dagoen eginda eta zertarako balio duen; era berean, txarteltxo batean deskribatu egiten dute zertan datzan saiakuntza eta muntai ondoan kokatzen dute erakusketagunean.



- Ardurak hartu: Umeek parte hartzeko oinarriak bete behar dituzte, bai eduki eta materialei dagozkienak, baita epe eta daten ingurukoak ere. Deialdia, beraz, modu simple eta erakargarrian aurkezten da Zientzia Azoka iragartzen duen kartel baten bidez.

Familien parte hartzea ahalbidetzen duen gune berria sortzea:

- Familiek saiakuntzaren ideia edota

muntaketan seme-alabei laguntza emanez hartzen dute parte, kontutan hartuz, eskolan erakutsiko dutela eta beste kide eta gurasoak ikusi egingo dutela azokan. Eskola-orduetatik kanpo egiten duten antolaketa eta lana jostagarri suertatzen da, jardueran parte hartzea borondatezkoa bait da.

ANTOLAKETARAKO URRATSAK

Deialdia eta sustapena

Lehenengo lana aftxe deigarri eta original bat sortzea da. Ondoren material hau jarduera jendarteratzeko erabiliko dugu eskolan alde batetik, eta ikasleen etxetara bidaliz bestetik. Honen bidez familien parte hartzea sustatu nahi da eta horretarako gonbidapena luzatuko zaie. Deialdia hiru aste aurretik egiten da.

Posterrean, parte hartzeko beharrezkoak diren azalpen guztiak aurki daitezke: parte hartzaileen kopurua, lan taldeen eraketa, etapa bakoitzaren amaiera data eta lan aukera posibleen adibideak, esaterako, etxeko esperimenduak, neurgailuak, trikimailu optikoak... . Gela bakoitzean, baita ere, aftxe hori banatuko da tutoreak komenta dezan, eta egoki ikusiz gero, proposamenak egin lantzen ari diren curriculumarekin zerikusirik izan

dezakeen esperimenteren bat egiteko. Sustapena handitzeko asmoz eta familiengana hobeto ailegatzeko ahoz aho-koa ere erabili dugu patio orduetan jardueraren nondik norakoak aipatuz.

Eskolaren gune batean, liburutegian kasu honetan, egin ahal izango diren esperimenteren eta deialdia bera azalduko den taula egongo da. Apuntatzeko zerrenda bertan izanen da eta aste pare batean denon esku egongo da. Aurten goa bigarrena izanenez, eta bultzada eman eta jendea erakusketan parte hartzera animatu nahian aurreko urtekoaren bideo emanaldia egin zen. Ikastetxearen jardueraenez material guztia euskaraz egin dago.



Azokaren prestaketa

Deialdian agertzen zen legez, lan guztiak liburutegian entregatzen dira, erakusketa baino egun batzuk lehenago. Han material guztia bildu eta erakustaldirako zenbat toki eta mahai beharko diren aurreikusten da. Entregatzeko orduan lan talde bakoitzak bere mahai ipiniko duen aurkezpen txartela ere prestatuko du. Txartel honetan parte hartzaileen izenaz gain, egindako lanaren azalpen laburra ere agertuko da: zein izena duen, zertarako balio duen... Beste alde batetik, familietako laguntzaileek bakoitzak bere izenarekin eramango duen

identifikazio txartelak prestatuko dituzte. Honen helburua parte hartzaileei protagonismoa ematea eta bizipen hau guztiontzat esanguratsuagoa egitea da.

Zientziaren erakusketa eguna

Klaseak bukatu ondoren hasten da erakusketa, ikastetxeko hallean, sarreran dagoen Guraso Elkartearen taulan aurretik jarritako egitarauaren arabera. Klaseak bukatzerako dena prest egongo da: mahaia, aurretik liburutegian gordetako lanak bere tokian ipinita, azalpen parak eta identifikazio txartelek bate-ra.

Lanak prestatzeko parte hartzaileak publikoa baino 15 minutu lehenago sartuko dira hallean. Beraz, 15 minutu ondoren ateak zabaltzen dira eta ikusleak mahaietan barrena erakusketaren ibilaldia egiten hasten dira. Esan beharra dago bizi izan den giroa bikaina izan dela, erakutsi duen interesa eta sormenagatik. Batez ere gauza bat azpimarratu beharko genuke parte hartu duten ikasleen partetik: ez dute bakarrik ideia bat eduki eta hura gauzatu, baizik eta, meritua handikoa izan da erakusteko eta esperimenteren azalpenak emateko orduan erakutsi duten gaitasuna. Esan dezakegu nabaritzen zaiela egin duten lanean ikasitakoa konpartitzeko eta ikusleengan harridura sortzeko gogo.

Ordu beteko erakusketa ondoren parte hartzaileei, oholtza gainera igoarazita, zientzia erakustazokan parte hartu izanaren oroigarri bana ematen zaie. Azkenik, argazkia atera denok batera. Argazkia hallean eta liburutegiko leku ageri batean ipiniko da. Ondoren, egindako guztiagatik, eskola komunitatearen errekonozimendu gisa, txalo zaparrada jasotzen dute. Familiek une esanguratsua bi-

zitzen dute eskolan, elkar-lanerako moti-
bagarria gure seme-alaben heziketaren
inguruan.

AZOKAREN BI BERTSIO

Parte hartzea eta sortzea, lortutako helburu bat:

Lehenengo urtean, azokak 80 mutil eta neska bildu zituen, hau da, lehen hezkuntzako ikasleen % 36. Ekimen horretan, 30 lan-talde aurkeztu ziren, honela sailkatuta: 19 etxeko esperimentu, 9 neurraketa-tresna eta 2 bilduma. Bigarren urtean, parte-hartzaileen kopurua 105era igo zen, hots, lehen hezkuntzako ikasleen % 44k parte hartu zuten. Horiek 40 talde antolatu zituzten, eta klima-fenomenoei, printzipio fisikoei eta erreakzio kimikoei buruzko esperimentuak aurkeztu zituzten gehienbat. Gainera, bigarren azokan, 6. mailako ikasle batzuk boluntario moduan aritu ziren, animazioa bultzatuz, oroigarriak banatuz eta erreportaje grafikoa eginuz.

Ereduaren abantailak, errepikatzeari begira:

- Ez du inolako kosturik eskolarentzat: behar den gauza bakarra da espazio egoki bat izatea azokarentzat. Deialdiaren erredakzioa, afixa eta amaierako bideoa familiek berek egin zuten, beren borondatez. Eskolako Gurasoen Elkarteak opariaren kostua hartzen du bere gain (3 € inguru parte-hartzaile bakoitzeko), baina hori ez da ezinbestekoa erreduaren baitan.

- Eskolako beste eragile batzuk inplikatu zituzten: adibide honen kasuan, irakasle

dinamizatzailea liburutegiaren ardura duna izan zen, baina beste norbait ere izan daiteke. Gainera, irakasleen estamentutik ere parte har daiteke, curriculumarekin zerikusia duten tresnak edo esperimentuak proposatzearen bitartez.

“ESPERIENTZIA HAU AUZO ETA PLAZETARA ATERA NAHI DUGU”

ETORKIZUNERAKO IDEIAK

Bi urte hauetako esperientziaren ostean, bi ideia nagusi sortu dira jarduera hau etorkizunean garatzeari begira, hots:

- Gure auzora iristea, Zientzien Azoka Atxuriko eskolatik atereaz eta Alde Zaharreko Plaza Barrira eramanez, horixe baita haurren ohiko jolastokia eta familien topagunea. Baita, eskola inguruko auzoetako beste plazetara ere, hala nola, Gizakunde plazara, Bilbikora eta Zumarraga plazara.

- Azoka eskolaren jarduera propio eta bereizgarri bezala finkatzea, eta, ahal izanez gero, Zentroko Planean ere txertatu, eskolako Gurasoen Elkartearekin batera egingo liratekeen jarduerara bezala.



INFORMAZIO GEHIAGO/GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO:
barriketan.atxuri@euskalnet.net



BIGARREN SARIA



2.0 GURASO ELKARTEA

Burunzpe Guraso Elkartea
(Sasoeta-Zumaburu LHI, Lasarte)

Guraso Elkarteko kideekiko zein ikastetxeko familiekiko komunikazioa hobetzeko asmoz, blog bat jarri berri du martxan Lasarteko Sasoeta-Zumaburu eskolako Guraso Elkartek. www.burunzpe.net helbidean ezagutuko duzue bloga eta hurrengo orrietan irakurri esperientzia.

1. AURKEZPENA

Lasarte-Oriako Zumaburu-Sasoeta ikastetxe publikoa bi eraikinetan banatuta dago: Zumaburu, Haur Hezkuntza aritzen dena; Sasoeta, Lehen Hezkuntza aritzen dena.

Gutxi gorabehera, Zumaburun 231 ikasle daude matrikulatuta eta Sasoetan, 169. Gaur egun, 20 guraso ari dira aktiboki lanean Guraso Elkarteko Batzordeetan.

Ikasleen Guraso Elkarreak (IGE) ikastetxeak adina urte ditu, baina azken lau urteetan, matrikulazioen kopurua etengabe hazi denez, komunikatzeko modu dinamikoagoa planteatu nahi izan dute, familiek beren seme-alabei ikastetxeak eskaintzen dizkien jardueren eta zerbitzuen segimendu azkarragoa egin dezaten.

“GURASO ELKARTEKO KIDEEEN AURREZ AURREKO BILERA ORDUAK MURRIZTU NAHI DITUGU”

2. PROIEKTUAREN HELBURUA

Guraso Elkarrea hobetzeko proiektuaren helburu nagusiak hauek dira:

•2.1. Unitate funtzionalak identifikatzea eta ardurak zehaztea

Zatitu eta irabazi. 2.0 Guraso Elkarrea goiburua horrekin hasi ginen antolatzen. Unitate funtzional bakoitzak Guraso El-

kartearen alor zehatz bat estaltzen du eta autonomia du arlo horretan. Unitate funtzional bakoitzaren bilera (aurrez aurrekoak edo online) ez daude lotuta gainerako unitateen bilerekin. Nolabaiteko garrantzia duten erabakiak soilik kontsultatzen zaizkio kudeaketa unitate funtzionalari, hau da, Guraso Elkarrearen Zuzendaritza Batzordeko kideei. Dena den, baliteke zenbait jardueraz bi batzorde edo gehiago arduratzea.

Komunikazioa errazte aldera, unitate funtzionalari batzordeak deitzen diegu eta, oro har, Zuzendaritza Batzordeko kide batek eta hainbat guraso kolaboratzailek osatzen dituzte. Antolaketa funtzionalaren atalean, batzorde bakoitzaren ardurak zehazten dira.

•2.2. Guraso Elkarteko kideen aurrez aurreko bilera orduak murriztea

Guraso Elkarteko kide beteroen esperientziak esaten digu jende gutxi joaten dela elkarrearen bilera orokorretara eta ez-ohikoetara. Egungo bizimodua eta gurasoen lan ordutegiak direla eta, dena uztartzea ahalbidetzen duen komunikatzeko beste modu bat bilatu beharko genuke. Horretarako, teknologia berriek hainbat erraztasun ematen dituzte.

•2.3. Albisteak, artikulu interesgarriak eta bestelakoak helaraztea guraso guztiei. Iritzi inkestak kudeaketa automatikoa

Gurasoek elkartean parte hartzea zaila baldin bazen, are zailagoa gertatzen zen elkarreak egunerokoan hartzen zituen erabakiak argitaratzea. Horregatik, ikasleen bidez gurasoei komunikazioak paperean eramateko ohiko moduaren ordez –norabide bakarreko komunikazioa–, beharrezkoa zen metodo azkarrago eta eraginkorrago bat ezartzea, gura-

soei, elkartean jorratzen ziren gai ei buruzko iritziak azaltzeko aukera emango ziena.

Ildo horretan, bi tresna garrantzitsu nabarmendu behar ditugu:

- Iritzi inkestak; aukera ematen baitiote Guraso Elkarteari online inkestak automatikoki kudeatzeko.

- Blogeko artikulua; gurasoei iruzkinak egiteko modua eskaintzen dietelako.

Horrekin lotuta, bereziki interesgarria da «Gurasoen eskola» txokoa: **GURASOAK GARA: GOZA DEZAGUN HORREKIN.**

gorratzen dira, seme-alaben hezkuntzarekin lotutako eginbeharrak, alde bate tik, eta zalantzak edo arazoak, bestetik. Baikorak ikastetxean ematen duen Guraso Eskolan jasotako artikulua batzuetarako sarbidea ere eskaintzen du.

•2.4. Gu erakunde gisa aitortzea eta autonomiaz jardutea, ikastetxerako eta hezkuntzarako interesekoak diren gaietan

Ildo horretan, Guraso Elkartek bilerak izan ditu zenbait erakunde pribatu eta publikorekin, adibidez, Lasarte-Oriako



Goiburu horrekin inauguratu genuen guraso hobeak izaten laguntzeko informazioa aurkitzeko lekua. Bi sail ditu:

- Artikuluak: 15 egunetik behin, artikulua bat argitaratzen da. Era berean, gurasoek artikulua argitara dezakete, elkarteari jakinarazi ondoren.

- Gero eta guraso hobeak: hainbat gai

Udalarekin, Hezkuntza Sailarekin, Elizarekin eta abarrekin. Batasunak indarra dakar, beraz, ikastetxeak erakundeetara iristeko dituen bide ofizialez gainera, batzuetan, beharrezkoa da Guraso Elkartea bera indartzea, guztienak diren helburuak lortzeko.

•2.5. Ingurunean txertatzen laguntzen duten kultura eta hezkuntza

alorretako herriko erakundeekin maiz komunikatzea

Ikastetxeak eta ikasleek ingurua ezagutzeari eta berorretan txertatuak egotea bultzatu nahi dugu. Horren harira, herriko kultur eragileekin (Ttakun, Erketz, Kukuka, etab.) harremanetan gaude. Nabarmenezkoa da Euskara Batzordeak alor honetan egin duen lana.

•2.6. Ikastetxean euskararen erabilera sustatzea

Zumaburu-Sasoetako Gurasoen Elkarteak Euskara Batzorde bat du zenbait gurasoren ekimenez. Izan ere, arduratuta zeuden ikasleek euskara gutxi erabiltzen zutelako, nahiz eta batzuen ama hizkun-

erabilera ikastetxeko arlo guztietan bultzatzea, hau da, ikasgelan, jolas-tokian, jangelan eta beste zeinahi jardueratan. Euskara Batzordearen eginkizuna bere helburua lortzeko jarduerak antolatzea eta sustatzea da.

Euskara Batzordea guraso guztien artean zabaltzen saiatuko da gure seme-alabek euskara erabil dezaten bultzatzeak duen garrantzia. Era berean, euskaraz erraztasunez mintzatzen diren ikasleek gaitasun hori gehiago gara dezaten eta euskara hizkuntza nagusi gisa ez duten ikasleek hobeto ikasi eta gehiago erabili dezaten ahaleginduko da. Horretarako, inguruko talde eta erakundeen laguntza



tza izan. Jokaera horren zergatia ikastetxearen kokaguneak (Lasarte-Oria) argitzen digu: gure udalerrian, gaztelaniaren erabilerak nabarmen gaintzen baitu euskararena. Horregatik, Guraso Elkarteak beharrezkotzat jotzen du euskararen

eta elkarlana bilatzen ari da. Ez dago esan beharrik ikastetxeko zuzendaritzaren erabateko babesa dugula horretarako, batzorde honen bultzatzaileetako bat izan baitzen. Bestalde, Lasarte-Oriako Udalarekin eta Baikaarekin bilerak

izan ditugu, eta Ttakunekin eta helburu hau lortzen lagun diezaguen beste zeinahi erakunderekin elkarlanean aritzea aurreikusi dugu.

Euskara Batzordea Guraso Elkarteko bileretan aktiboki parte hartzen duten 5 gurasok osatzen dute. Gainera, gauza-tzen diren ekintzetan aktiboki parte hartzeko prest dauden beste 10 gurasoz osatutako Euskara Taldea sortu da. Bestalde, Euskara Batzordearen eta ikastetxeko zuzendaritzaren ustez, adituen laguntza beharrezkoa da gai honetan. Horregatik, hezkuntza inguruko eremuetan euskararen erabilera bultzatzen aditua den EBETE aholkularitza enpresarekin lanean ari gara, jarduerak antolatzeko eta burura eramaten lagundu diezagun.

•2.7. Batzordeetarako informazio gordailu pribatua, edonondik irisgarria

Lehenago azaldu den bezala, ahalik eta aurrez aurreko bilera gutxien egiteko asmoz, Guraso Elkarteko batzordeek gurasoek erabiltzen dituzten tresna teknologiko berberak erabiltzen dituzte, baina eremu pribatuan (intraneta). Arlo horretan, denek eskura ez dituzten batzordeen bileretako aktak eta dokumentazioa aurki daiteke.

3. ANTOLAKETA FUNTZIONALA

KUDEAKETA

•**Presidentea:** Eskola Kontseiluaren eta Udal Eskola Kontseiluaren bileretara joatea, baita Baikorarekin, Ordezkaritzarekin, ikastetxeko zuzendaritzarekin eta abarrekin antolatutakoetara ere.

•**Idazkaria:** ohiko eta ez-ohiko bileretako aktak idaztea, diru laguntzak eska-

tzea... Batzordeak koordinatzea, etab.

•**Diruzaina:** Gurasoen Elkarteko kontuak kontrolatzea, fakturak ordaintzea, etab.

•**Gurasoekin harremanetan egotea:** oharrak, deialdiak, web orria...



•**Guraso eskola, hitzaldiak, ikastaroak, etab.**

FESTAK ETA LIBURUAK

•San Tomas, Eguberriak (loteria...), Inauteriak, ikasturte amaiera, etab.

•Ikasturte hasieran liburuak eskatzea eta banatzea.

ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK

•Goiz Txokoa zerbitzua eta Sasoeta-Zumaburuko eskolaz kanpoko ekintzak koordinatzea, etab.

LANAK

•Zumaburu eta Sasoetako eraikinetako obrak eta mantentze-lanak. Ikastetxeko zuzendaritzarekin, Ordezkaritzarekin eta Udalarekin ikastetxeko beharrak adostea, etab.

EUSKARA

•Dinamizazioa, itzulpenak...

4. TRESNA TEKNOLOGIKOAK

Doako tresnak biltzen dituen azpiegitura bat sortu dugu, burunzpe.net.; berorren kostu bakarra domeinu nagusia erregistratzea izan da (urtean hamar euro baino gutxiago).

Guraso Elkartearen bloga: <http://burunzpe.net>

•4.1. Gurasoen eta Guraso Elkarteko Zuzendaritza Batzordearen arteko komunikazioa

Guraso Elkarteko ohiko bileretara joaten diren pertsonen kopurua ikusita, gurasoekin harremanetan egoteko beste edozer modu ona izango litzatekeela pentsatu genuen.

Guraso ugarik eman zioten helbide elektronikoko bat ikastetxeko zuzendaritzari; hala jakin genuen etxe askotan erabiltzen dutela Internet. Ondoren, web orri bat sortzea erabaki genuen, bi norabide-tako komunikazioa bultzatzeko tresna bezala, zehazki, blog bat (<http://eu.wikipedia.org/wiki/Blog>). Ez ditugu hemen blog batek bete ditzakeen funtzio guztiak azalduko, baina gure beharrak betetzen dituztenak nabarmenduko ditugu:

•Informazioa azkar argitaratzeko aukera: informazioa berehala editatzea eta transmititzea ahalbidetzen digu. Adibidez, bileretako akten laburpenak; beraz, gardentasuna bermatzen dugu eta gure jarduerak jakinarazten (guraso kolektiboaren parte-hartzea bultzatzeko asmoz.)

•Guraso komunitatearen parte-hartzea:

Blogean, Guraso Elkartearekin harremanetan jartzeko helbide elektronikoko bat adierazi dugu (info@burunzpe.net). Dena den, tresna honen abantailarik handiena da artikuluetan edo mezuetan iruzkinak idazteko aukera ematen duela; hala, eztabaida sortzen baita. Batzuetan inkestak ere argitaratzen ditugu.

•Argitalpenak berehala jasotzea: blogaren plataformak bi modutan abisatzen du eduki berria argitaratu dela. Alde batetik, irakurleei mezu elektronikoko bat bidaltzen die, eta bestetik, RSS edo edukia zabaltzeko iturri batera harpidetzeko mekanismoa eskaintzen du (<http://eu.wikipedia.org/wiki/RSS>).

Gainera, blogean argazki biltegi (picasaweb.google.com) baterako eta artxibo biltegi baterako (dropbox.com) estekak daude.

“GURASO UGARIK EMAN DIGUTE HELBIDE ELEKTRONIKOA”

Blogaren segimendua, posta elektronikoz eta RSS bidez, orain arteko mailan mantentzea espero dugu, 2011-2012 ikasturtearen amaieran 300 etxe (% 75) inguru harpidetuta egon daitezen. Bestalde, inor ez baztertzeko asmoz, iragarki taula bana jarri genuen eraikin bakoitzean, argitaratzen diren artikuluko paperean ere eskuratu ahal izateko.

•4.2. Ikastetxeko Zuzendaritzaren eta Gurasoen Elkarteko Zuzendaritza Batzordearen arteko komunikazioa
Maiz jartzen gara harremanetan ikaste-

txeko Zuzendaritzarekin, GTalk txat tresnaren eta posta elektronikoaren bidez. Arazoren bat bide horietatik kudeatu ezin denean, eta aurrez aurre biltzea beharrezkoa denean, hitzordu bat jarri eta auzia konpontzen dugu. Gainera, aurretik harremanetan egon garenez, prozesua askoz azkarragoa da.

•4.3. Guraso Elkarteko batzordeen barne komunikazioa

•4.3.1 Posta zerrendak

Hainbat posta zerrenda (<http://eu.wikipedia.org/wiki/Posta-zerrenda>) sortu ditugu mezu elektronikoen banaketa errazteko eta kide guztiak jasotzen dituztela ziurtatzeko.

Guraso Elkarteko batzordeetako kide guztientzako zerrenda orokor bat ez ezik, batzorde bakoitzerako posta zerrenda berezi bana ere badago:

ampa@burunzpe.net
euskera@burunzpe.net
extraescolares@burunzpe.net
fiestas-libros@burunzpe.net
gestion@burunzpe.net
obras@burunzpe.net

•4.3.2 Barne bloga

Sarbide mugatua duen blog bat sortu da, Zuzendaritza Batzordearen hainbat premia asetzeko:

- Barne komunikazioa: artikulua argitaratzen dira eta, egiten diren iruzkinen bidez, eztabaidak sortzen dira.

- Barne informazioa: Elkarterako barne informazio interesgarria.

- Informazio biltegia: batzorde bakoitzaren dokumentazioa sailkatuta gordetzen du.

- Wikia: (<http://eu.wikipedia.org/wiki/Wiki>) dokumentu lagungarriak sortzeko erabiltzen da.

Berrietara harpidetzeko ohiko moduak ere baditu.

5. ETENGABEKO HOBEKUNTZA PLANA

Ikastaro bakoitza ziklo bat da, baina beti dago aurretik bereizten duen zerbait. Gurasoen Elkarreak ikastaro bakoitzari buruzko hausnarketa egiten du, hurrengo hobetzeko xedez. Horretarako, ondoko galdera hauei erantzuten diegu:

- Zein ziren gure helburuak?

- Noraino iritsi gara horiek lortzeko?

- Nola ebaluatu dezakegu lortutako emaitza?

Ezin da ezagutzen ez dena hobetu, ez eta neurtu ezin daitekeena behar bezala ezagutu ere. Horregatik, ikasturtearen amaieran (maiatza, ekaina) gurasoei inkesta bat bidaltzen diegu, Guraso Elkarrearen lana balioztatu dezaten eta hurrengo ikasturterako hobekuntzak proposatu ditzaten.

Inkesta blogean argitaratzen dugu, online erantzun ahal izateko. Dena den, Internetera sartzeko zailtasunak dituzten familiei paperean ere bidaltzen diegu.



INFORMAZIO GEHIAGO/GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO:
www.burunzpe.net

HIRUGARREN SARIA

KOMUNITATE LANAREN EGUNA

**Zurbaran Guraso Elkartea
(ZURBARAN LHI, Bilbo)**

2009. urtetik, Komunitate Lanaren Eguna ospatzen da Bilboko Zurbaran eskolan. Egun honetan, eskolaren instalazioak hobetzeko hainbat lan egiten du eskola-komunitate osoak boluntario gisa. Izan ere zuhaitzak landatu, bermargotu edo konponketa txikiak egiten dituzte, besteak beste, jai-giroan.

AZALPENA

2009tik hona, Guraso Elkartearen ekimenez, Bilboko Zurbaran ikastetxeak Komunitate Lanaren Eguna ospatzen du, urtero, ikasturte barruan.

Asteburuko egun batean, hezkuntza erkidego osoak (familiak, ikasleak eta ikas-

ritzaren eskumenekoak ez badira.

- Eskolak eta Gurasoen Elkarreak antolatzen dituzten jardueretan erabiltzeko azpiegiturak eta materialak prestatzea (baratza, patinatzeko pistak...).

- Gure seme-alabekin zenbait jardueraz



tetxeko langileak) ikastetxea eta instalazioak hobetzeko laguntzen dute boluntario gisa. Egun horretan, ikastetxea hobetzeko lanak (zuhaitzak landatu, margotze lanak, konponketa txikiak...) egiten dira jolas- eta jai-giroan. Umeek eta helduek elkarrekin egiten dute lan, nork bere gaitasunak praktikan jarritz. Bukatzeko, elkarrekin bazkaltzen dute eta jolas batzuk egiten dituzte.

HELBURUAK

- Ikastetxea hobetzeko lanak egitea, betiere, Bilboko Udalaren edo Eusko Jaurla-

(zuhaitzak landatu, horma irudi bat margotu, liburuak forratu...) gozatzea. Era honetan, familiako kideek hainbat jarduerak eta gaitasun irakatsiko dizkiete ikasleei.

- Eskolarekin harreman txikiagoa duten familiak erakartzea, lotura berriak sortuz, erkidego bat sortzeko.

- Lan arrazoiengatik, besteak beste, eskolarekin ia harremanik ez duten gurasoen partaidetza bultzatzea.

- Elkarrekin ondo pasatzea.

HISTORIA

Ikastetxea Zurbaran LHik eta Zurbarak BHik osatzen dute. Betidanik, ikasturte honetara arte, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikasleen familiak biltzen zituen Guraso Elkarte bakarra izan dugu.

2009an, denbora luzez ikastetxea obratan egon ondoren, hainbat eraikin berri amaitu ziren eta Bigarren Hezkuntzako ikasgelak, gimnasio berria eta elkartzen zen bazkaldar kopuruari egokitutako jangela bat kokatu ziren berorietan.

Guraso Elkartek urteak eman zituen eraikin horiek eskatzen, eta obra prozesua gertutik jarraitu zuen. Dena amaitu eta erabiltzeko prest zegoela ospatzeko, inagurazio festa antolatu genuen.

“ESKOLAKO KIDE GUZTIEK INSTALAZIOAK HOBETZEN DITUZTE BOLUNTARIO GISA”

Jaia, ospakizun bat ez ezik, familia guztiak elkartzeko eta instalazioak hobetzeko aukera izan zitekeela bururatu zitzaigun. Asmoa ez zen erakundeen eskumenekoa zen lana gauzatzea, ikastetxeari hainbat osagarri gehitzea eta azpiegiturak hobetzea baizik.

Gainera, bai ekintza eta bai berorren helburuak garai horretan abiarazi genuen *Eskola bat trantsizioan* ekimenarekin ongi zetorrela iruditu zitzaigun.

Hala, 2009ko abenduaren 12an lehen Komunitate Lanaren Eguna antolatu genuen.

Esperientziak arrakasta handia izan zuen eskola-komunitatean. Familia parte-hartzaileek lana, bazkaria eta jostaketa partekatu zituzten. Irakasleak eta ikastetxeko gainerako langileak oso pozik geratu ziren egindako lanekin. Ordutik aurrera, eskolako baratzak, adibidez, hezkuntzako baliabide osagarri moduan erabiltzen hasi ginen.

Egun horren ebaluazioa egin ondoren, ikasturtean behin antolatzen saiatuko ginela erabaki zuen Guraso Elkarteak.

Hurrengo ikasturtean, apirilaren 2an antolatu genuen Komunitate Lanaren Eguna. Jende ugari hartu zuen parte jardunaldian.

2011-2012ko ikasturte honetarako, berriaz, maiatzaren 13rako, igandea, antolatu dugu. Igandean antolatu izanaren helburua, aurreko urteetan (larunbatez lan egiten dutelako) parte hartu ezin izan duten gurasoak erakartzea zen.

PRESTAKETA

Komunitate Lanaren Eguna antolatzeko, lehenik, ikastetxean gauzatu beharreko hobekuntzen zerrenda prestatzeko eskatzen diegu irakasleei eta zuzendaritza taldeari. Guraso Elkarteak berak ere bilerak egiten du egun horretarako ideiak emateko. Data aukeratu ondoren, familiei ohar baten bidez jakinarazten diegu, egin beharreko gutxi gorabeherako lan zerrendarekin batera. Ohar horretan, gainera, eguraldi iragarpenaren arabera, data aldatu egin daitekeela azaltzen diegu.

Bestalde, ohar bera erabiltzen dugu interesa duten familiei informazio bilerara etortzeko deia egiteko. Bilerak horren helburuak jardunaldiko lantaldeak antola-

tzea eta talde bakoitzeko arduraduna izendatzea dira. Arduradunak(ek) lanak gauzatzeko behar diren materialen zerrenda idatziko du(te) eta dagokion(en) gaian (lorenzaintza, pintatzea, zurgintza) du(t)en esperientzia baliatuko du(te), talde-lanak antolatzeko eta koordinatzeko.

Guraso Elkarteko Batzordeak prestatuko du jardunaldiko programa. Orain arte,



goizez egin izan dira lanak, ondoren guztiek bazkaldu eta arratsalderako jokoak antolatu dira.

Zenbait egun lehenago, familiei beste ohar bat bidaltzen zaie, ekitaldia gogorarazteko eta programa zehatzaren eta ordutegiaren berri emateko. Gainera, azken bilera egingo da arduradunekin, beharrezko materialak eta tresnak prestatzeko daudela ziurtatzeko.

EGINDAKO LANAK

Pintura lanak:

Jolastokiko zenbait paretan berdez margotu ziren, lorategiaren itxurarekin bat

etor zitezten. Futbol zelaiko marrak berriz margotu ziren eta bi saskibaloiko zelaietako marrak ere markatu ziren. Jolastokiko eremu bateko zoruak, zenbait jolas (txintxirrinka, twistter, hiru lerroan...) marrazteko proiektua dago. Hala, ikastetxea dekoratuz gain, ikasleak dibertitzeko eta irudimena askatzeko espazioak lortuko dira.

Lorezaintza lanak:

Lorategiak konpontzea eta zuhaixkak eta arbolak landatzea; zoria betetzea eta egokitzea; ikastetxean erabiltzeko landare-ontziak prestatzea...

Eskolako baratza:

Eskolako baratza eratzeko zenbait edukiontzi diseinatu eta sortu ziren. Zurezko palet erabiltzatik abiatuta, zenbait egitura muntatu genituen. Ondoren, zurari tratamendu bat aplikatu genion, hezetasunak hondatu ez zezan. Gero, lurrari eutsiko dion eta hezetasunari pasatzen utziko ez dion materialez egiturak estali genituen eta, azkenik, lurrez bete genituen.

“BEHAR DIREN HOBEKUNTZEN ZERRENDA PRESTATZEN DA”

Dekorazio lanak:

Jolastokiko paretan batean, horma-irudi artistikoa margotu genuen. Ogibidez artista den ikastetxeko guraso baten diseinuari eta ideiei jarraiki, boluntario talde bat arduratu zen lan honetaz. Beste zenbait zutabe ere margotu ziren, horma-irudiarekin osotasun bat eratzen zutela.

Komunitate Lanaren Egunaren aurreko egunetan, DBHko ikasleentzako graffiti lehiaketa bat antolatu zen. Irabazleak

bere diseinua margotu zuen egun horretan eraikinaren kanpoko paretetako batean.

Beste lan batzuk:

Patinekin ibiltzeko zurezko aldapak sortzea, LHko jolastoki estalian bankuak jarritzea, egurrezko iragarki taulak egitea, Haur Hezkuntzako geletan apalak jarritzea, liburuak forratzea, konponketa txikiak...

JOLAS JARDUERAK

Urtero, Komunitate Lanaren Egunean denontzako bazkaria antolatu ohi dugu, 15:00etan. Ikastetxeko guraso talde bat arduratzen da paellak prestatzeaz eta, ondoren, goizean lanean aritu diren ume eta heldu guztien artean banatzeaz. Gainera, familiak hainbat jaki (tortilak, entsaladak, tartak...) ekarri izan dituzte etxetik eta gainerakoekin partekatuta dituzte.

Arratsaldean, zenbait jarduera antolatu dira: besteak beste, helduentzako mus txapelketa, umeentzako ziba edota finger skateboard lehiaketak, aurpegiak margotzeko edo mozorroak sortzeko tailerrak, etab.

Gainera, behin, Afrikako perkusio mintegia antolatu genuen, eta musikari batek djembeak, darbukak eta bestelakoak erabiliz erritmoak jotzen erakutsi zigun. Txikiak hutsik zeuden pintura poteekin danborrak fabrikatu eta perkusioa ikasteko aukera izan zuten. Normalean, eguna amaitzeko, musika jarri eta dantza egiten dugu guztiok.


BALIABIDE MATERIALAK

Oro har, Guraso Elkarteak edo ikastetxeak erosten ditu materialak (pintura, pintzelak eta brotxak, zura, torlojuak...).

Kasu batzuetan, gurasoek ekartzen dituzte erremintak (zulatzeko makinak, zurgintzako tresnak, aitzurrak...).

Bilboko Udaleko Lorezaintza Zerbitzuak lurra eta zuhaixkak eman dizkigu eta ikastetxeraino ekarri dizkigu, gainera.

Aukera egon den guztian, familien bidez lortutako material birziklatuak edo bigarren eskukoak erabili dira: baratza eratzeko materialak...



AIPAMEN BEREZIA

HOBETU BEHARREKO ALDERDIEN AUDITORIA SUKALDEA KUDEATZEKO

ERANDIOKO ALTZAGA IKASTOLAKO GURASO ELKARTEA
(Altzaga-Erandio Ikastola LHI BHI, Erandio)

Erandioko Altzaga Ikastolako Gurasoen Elkarteak tokian bertan janaria prestatzen duten sukaldeak kudeatzeko erreferente izan nahi du, % 100eko osasun bermea eta kalitaterik handiena emanaz. Horretarako, 2011-2012 ikasturtean Arriskuen eta Kontrol Puntu Kritikoen Análisi sistema ezarri du, eta Gurasoen Elkarteak kudeatuko du zuzenean.

1. JARDUERAREN DESKRIBAPENA

Erandioko Altzaga Ikastolako Gurasoen Elkarteak tokian bertan janaria prestatzen duten sukaldeak kudeatzeko erreferente izan nahi du, % 100ko osasun bermea eta kalitaterik handiena emanez, Eusko Jaurlaritzak kudeatzen dituen sukaldeen osasun eta kontrol irizpide berbereri jarraiki. Horretarako, 2011-2012 ikasturtean Arriskuen eta Kontrol Puntu

bliko bihurtzean, Eusko Jaurlaritzak kudeatu zuen, eta ondoren, Eusko Jaurlaritzak ardura hori utzi zuenean, Guraso Elkarteak kontratatu zituen langileak.

•1.2. Lehenengo esperientzia

Garai hartan, bazkaria ikastetxean prestatuko zuten langilerik gabe geratu ziren 650 bazkaldar. Orduan, familien batzarra egin eta erabaki zen Gurasoen Elkarteak



Kritikoen Análisi sistema ezarri du, eta Gurasoen Elkarteak kudeatuko du zuzenean.

•1.1. Ideiaren jatorria

Eredu kooperatibista gisa sortu zenetik, Guraso Elkarteak kudeatu ditu sukaldea eta jangela. Gaur egungo eraikina egin zenean, solairu nagusiaren zati handi bat sukalderako eta jangelarako erabili zen. Orduetik, hainbat eredu erabili izan dira sukaldea kudeatzeko: kooperatiba zenean, langile propioak zituen; ikastola pu-

hartuko zituela bere gain menuak antolatzeko, bazkaria prestatzeko, janaria banatzeko eta ikasleak jangelan zaintzeko lanak.

Erabaki horren ondorioz, hainbat aurrekontu eskatu genituen, enpresa baten bidez langileak kontratatu ahal izateko. Dena den, bertako langileak (ikastetxeko guraso eta ikasle ohiak) lanean geratu ziren.

Azkenean, GASCA enpresa kontratatu

genuen, Guraso Elkarteari sukaldearen eta jangelaren inguruko erabakiak hartzen laguntzeko.

•1.3. Eta orain zer?

Jangelak behar bezala funtziona zezala lortu ondoren, ahalik eta kalitate eta osasun berme onenak lortzea da helburua. Gaur egun, 700 menu baino gehiago prestatzen ditu, horietako batzuk ikasle-en behar berezietara egokituak: zeliakoen entzat, arrautzak edo esnekiak jasan ezin dituztenentzat, haragirik gabeak. Horregatik, sukaldearen kudeaketak sistematikoa izan behar du jada.

**“BERTAN
JANARIA
PRESTATZEN
DUTEN
SUKALDEAK
KUDEATZEKO
ERREFERENTE
IZAN NAHI
DUGU”**

Sukaldeak eta jangelak osasun aginteez ezarritako betekizunak betetzeaz eta sisteman alta emanda egoteaz gainera, etapa guztietan (gaiak erostean, sukaldean jasotzean eta banatzean) osasuneko baldintza guztiak betetzen direla eta kutsadurak saihesteko arrisku guztiak kontrolatzen direla egiaztatu behar dute. Izan ere, halakorik gertatuz gero, ondorio larriak izan daitezke.

Gaur arte ez da osasun arazorik izan, baina ez dela izango ziurtatzeko, prozesuetako ardurak aldatzea, idatziz jasotzea,

eta Gurasoen Elkarteko Batzordeak onartu ondoren, produktuen ibilbide osoa kontrolatzeko eta segimendua egiteko sistema ezartzea planteatu dugu.

2. PROIEKTUAREN HELBURUAK

•2.1. Arriskuen eta kontrol puntu kritikoaren analisia egitea

Erandioko Altzaga Ikastolako Guraso Elkartek ezinbestekotzat jotzen du ikastolako jangelan prestatzen eta zerbitzatzeko diren produktuen elikadura segurtasuna bermatzea. Horregatik, osasun autokontrol sistema ezarriko du.

Autokontrol sistema hori hainbat planetan oinarritzen da, besteak beste: **elika-gai manipulatuzaileen trebakuntza**, beren lanpostuen arabera; **hornitzaileen kontrola** eta ikastolako jangelan gauzatzeko diren **jarduera guztiak gainbegiratzea**.

Arriskuen eta Kontrol Puntu Kritikoaren Analisia gauzatzeko, erantzukizunak banatu dira; erosten, prestatzen eta kontsumitu arte gordetzen diren produktuak deskribatu dira; baita jasotze, biltegitratze, tratamendu eta prestaketa prozesuak ere; arriskuak eta prebentzio neurriak zehaztu dira (kontrolerako alderdi kritikoak); eta dena kontrolatu eta erregistratu da, horretarako sortutako dokumentuetan.

Hori guztia gauzatzeko, **jardunbide egokiak** eta beharrezko **trebakuntza** zehaztu dira. Behin prozesua ezarri ondoren, sistema abalatu duen **barne auditoriak** eta **kanpo auditoriak** egingo dira. Hala, **beharrezko analisiak eta kontrolak zehaztuta** geratu dira.

•2.2. AKPKA prestatzeko oinarriak

Auditoria sistema sortzeko, indarrean

dagoen legediaz gain, Osasun Publikoko Zuzendaritzaren (Eusko Jaurlaritza, Osasun eta Kontsumo Saila) Arriskuen eta Kontrol Puntu Kritikoaren Analisia oinarritutako elikagai enpresen autokontrol sistemen erreferentziako estandarri jarraitu zaio, baita Kataluniako Generalitatearen Osasun Saileko AKPKA sistema bat diseinatzeko eta aplikatzeko gidaliburuari ere.

AKPKAk bi zati ditu:

•**Liburuaren**, prozesuen eta produktuen **deskribapena**; puntu kritikoaren analisia, egiaztapena eta baliozkotzea

•**Planak**: trebakuntza, garbiketa, desinfekzioa, mantentzea, kontrasteak, hornitzaileen homologazioa, loteak, desadostasunen tratamenduen trazabilitatea.

•2.3. Eskuliburuaren diseinua

Ekimen honen bidez, ikastetxeetako sukaldeetan bertan prestatzen diren elikagaiak, Eusko Jaurlaritzak kudeatzen dituen sukaldeetako osasun irizpide eta kontrol baldintza berberak jarraitzen dituztela frogatu nahi da.

•**Eskuliburu**a: diseinua, organigrama, ardurak, konpromisoak eta autokontrol sistemak, baita aplikatzekoa den legedia ere.

•**Produktua**: prestatu beharreko platerak, prestakuntza fitxak, osagaiak eta erabili beharreko produktuak zehaztuko dira.

•**Erregistroak**: erregistroen trazabilitatea eta arriskuen azterketa.

**“GURE
IKASTETXEAN
PRESTATZEN DIREN
ELIKAGAIK, EUSKO
JAURLARITZAK
KUDEATZEN DITUEN
SUKALDEETAKO
OSASUN IRIZPIDE
ETA KONTROL
BERDINAK
DITUZTE”**

**“GAUR ARTE
EZ DA OSASUN
ARAZORIK IZAN,
BAINA EZ DELA
IZANGO ZIURTATU
NAHI DUGU
PROZESU
HONEN BIDEZ”**

•**Prozesuak:** baliozkotzea eta egiaztapena.

•**2.4. Planen diseinua**

Bigarren zati honetan, gauzak nola egin zehazten da. Horretarako, plan hauek sortu dira:

•**Jardunbide egokiak:** elikagaiak eta tresnak manipulatzeko eta lanerako tokiaren osasun eta higijene baldintzak.

•**Garbiketa eta desinfekzioa:** produktuen erregistroa.

•**Desinfekzio plana:** prebentzio eta kontrol neurrien diseinua.

•**Trebakuntza plana:** planaren eta jardunbide egokien ingurukoa.

•**Lanerako tresneriak eta instalazioak zaintzea:** instalazioen, tresnerien eta berorien mantentze lanen kontrol fitxak.

•**Kontrastea:** neurgailu kalibratuen desbideratzeak aurkitu eta hutsegite kasuetan zer egin zehaztuko da.

•**Hornitzaileak homologatzea:** hornitzaileen lehengaien eta baldintzen etengabeko azterketa eginez.

•**Trazabilitatea eta loteak:** produktuen segimendua eta desadostasunen kasuan zer egin zehaztea.

•**Desadostasunak:** desadostasunen kasuetan zer egin zehaztea

AIPAMEN BEREZIA

FAMILIA LAGUNEN EGITASMO KULTUR ANITZA: ELKAR EZAGUTUZ EZAGUTU

JAIKIN GURASO ELKARTEA
(Ruperto Medina LHI, Portugalete)

Ikastetxeko gurasoen arteko erlazioak hobetzeko asmoz, Ruperto Medina eskolako Guraso Elkartek proiektu bat jarri zuen martxan duela bi ikasturte. Lortu egin dute jai-jarduera eta denboraren bankuaren bidez.

NOIZ HASI ZEN?

2009-2010 ikasturtean, Ruperto Medina hezkuntza komunitatean, egitasmo berri-zaile bat jarri genuen martxan. Guraso guztien arteko harremana sendotzea zu-

ritziak gehituz gero, arazoa okertu egi-ten da.

Ikastetxearen egitasmo honetan, gura-soek eta irakasleek hartzen dugu parte. Hasieran, guraso guztiak parte hartzera



en helburu, haien jatorria, kolorea, erlijioa eta sexua edozein zirela ere. Denok gara desberdinak, baina denok dugu lotzen gaituen zerbait: umeak.

NOLA SORTU ZEN?

